



## SERVICIOS ARGVA-VALDIZARBE / ARGVA IZARBE ZERBITZUAK S.L. ENPRESARENTZAT BULEGO TEKNIKORAKO ETA PROIEKTUETARAKO TEKNIKARIEN ZERRENDA ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK EGITEKO DEIALDIA

Servicios Arga-Valdizarbe/Arga Izarbeibarko Zerbitzuak S.L. enpresaren Administrazio Kontseiluak 2018ko apirilaren 12an egindako bileran Bulego Teknikorako teknikariak, zerbitzuaren beharren arabera, aldi baterako kontratatze deialdia.


### 1. 1.- OINARRIEN XEDEA ETA ARAU OROKORRAK:

Deialdi honen helburua Bulego Teknikorako Teknikarien zerrenda osatzea "Servicios Arga Valdizarbe /Arga Izarbeibarko Zerbitzuak S.L." enpresan. sortzen diren aldi baterako beharrei erantzuteko.

Enpresak kontratatu ahalko ditu probak gainditzeko dituzten izangaiak Ingeniari Teknikoaren lan kategoriari dagozkion lan baldintzekin eta enpresan dagoen lan hitzarmenaren arabera.

Maila eta kategoriari zein deialdian eskatzen diren titulazio eta ikasketei dagozkien betebeharrak eta lanak egingo ditu, besteak beste:

Eginkizunak:	
Arlo ezberdinek eskatzen dituzten proiektu zein prozesuak garatzen ditu, bere inplementazioa erraztuz. Batzuetan, proiektuak garatuz edota Zerbitzuaren Arduradunari lagunduz enpresak dituen helburuak betetzeko, beti ere, alde aurretik markatutako lehentasunak, prozesuak eta prozedurak jarraituz.	
ALORRA	ERANTZUKIZUNZK
1.Kontuak eman, emaitzak, eraginkortasuna, efikazia	Esleitutako helburuak betetzea bai eguneroko jardueran bai parte hartzen duen proiektu zein plangintzetan, uneoro emaitzen gainditzea (kuantitatiboa edota kualitatiboa) helburua izanik, beti ere, laguntza eraginkorra ematen enpresaren arrakastarako eta enpresa jasangarri eta komunitaterako onuragarria baloratu izan dadin.
2. Bulego Teknikoa eta Proiektuena	Bulego teknikoaren eta proiektuenean parte hartuko du proiektu, esleitutako lan, eskatzen diren kontsulta zein txosten teknikoetan beharreko emaitzak lor ditzaten lehentasunen, prozesuen eta finkatutako helburuen arabera.
3.Mankomunitatearen lanak eta proiektuak	<ul style="list-style-type: none"><li>Eraginkortasunez parte hartu, Arduradunak emandako paperaren arabera, berari dagozkion proiektuetan aipatutako proiektuen helburuak lortzeko laguntza garrantzitsua ematen eta bere eginkizunak marko orokorrari zein proiektu horretarako markatutako prozedura eta planifikazioari egokituz.</li><li>Kontrolatu, hala eskatzen badiote, proiektuen betetze egokia, proiektuak onartuz, aldatuz eta oniritzia emanez hitzartutako helburuen araberrako emaitzak ziurtatzeko.</li><li>Kontrolatu, hala eskatzen badiote, Mankomunitateak sustatzen dituen lanen kudeaketa eta proiektuen idazketa, koordinatuz, eta hala badagokio, tramitazioak, baimenak, pleguen eta behar diren txosten teknikoaren idazketa, hala nola, kontratatutako enpresen kontrola eta ikuskapena.</li></ul>
4. Hirugarrenek Mankomunitatearen sustatutako lanak eta	<ul style="list-style-type: none"><li>Urbanizazio eta lan konplexuetan: txostenak idaztea, kontrolatzea, hala eskatzen badiote, lanen eta proiektuen et baita administrazio espedientearen betearazpena, aprobatur, aldatuz eta azken oniritzia emanez hitzemandako helburuen eta Mankomunitatearen</li></ul>




proiektuak.	araudiaren arabera emaitzak ziurtatzeko. <ul style="list-style-type: none"><li>Lan xumeetan (etxebizitzetako harguneak etab.) lanak egiterakoan sortzen diren aldaketei buruzko txostenak idaztea, aholkuak ematea eta, beharrezkoa bada, ustiapena, sustatuko lanak zorrozki betetzen dituztela proiektuen baldintzetan markatutako araudia ziurtatzeko.</li></ul>
5.Proiektuen aholkularitza teknikoa	<ul style="list-style-type: none"><li>Instituzio eta entitate publiko zein pribatuei, erabiltzailei, Mankomunitatearen eta enpresaren gobernu organoei behar duten eta balio erantsia duen aholkularitza ematea eskatzen dituzten proiektuei buruz eta, guzti hori, enpresak urtero markatutako lehentasun eta irizpideei jarraituz.</li><li>Araudia eguneratua izatea (Uraren Ziklo Integralaren Araudia, Araudi teknikoak, argitaratzen diren eta zerbitzuan eragina duten araudi berrien kontrola) eta material berriak onartzeko txostenak egitea ziurtatu ahal izateko informazioak eta materialak araudiaren eta kalitate-estandarren betetzea bermatzen dutela.</li></ul>
6.Uraren Ziklo Integralaren ustiapena.	<ul style="list-style-type: none"><li>Ur-zerbitzuaren Arduradunarekin koordinazio eta lankidetzaren estuan, eta enpresak ezarritako lehentasunak eta irizpideak jarraituz, hala eskatzen diotenean, Proiektu estrategikoak, Prozesuak eta Prozedurak, hala nola, Zerbitzuan garatzen edo garatu nahiko den etengabeko hobekuntza ezarri, zehaztu, eta inplementatu,</li><li>Ur-zerbitzuaren Arduradunarekin koordinazio eta lankidetzaren estuan, hala egokitzen badiote, araudi teknikoa eguneratua mantentzea (Araudi teknikoak, zerbitzuari dagozkion argitaratzen diren araudi berriak kontrolatzea) material berriak onartzeko informazioak egitea, informazioak eta materialek araudia eta kalitatezko estandarrak beteko dituztela ziurtatzeko, beti ere, arduradunarekin koordinazio eta lankidetzaren estuan.</li></ul>
7.Arreta eta informazioa eman.	Bideratu, erantzun, informatu, erreklamazioak erabaki, eta, hala eskatzen badute, erabiltzaileak eta erakunde publiko zein pribatuak proaktibo eta erreaktiboki hezi, horrela, gaiak erabaki ahal izateko edota helburu eta konpromisoak bete ahal izateko.

## 2. IZANGAIEN BETEBEHARRAK.

Lan poltsan onartuak izateko, izangaiek honako baldintzak bete behar dituzte:

- 16 urteak betetzeak izatea eta nahitaezko erretiroaren adina es gaintzea.
- Espainiarra izatea edo EBko herrialde bateko nazionalitatea izatea, edo EBrekin egindako itunen bidez langile-zirkulazioa librean dutenen beste herrialdeko batekoa izatea. Espainiar nazionalitatea duten senar-emazteek ere parte hartzen ahalko dute, betiere bereizita ez baldin badaude, eta baita senar-emaztearen seme alabek ere, bereizita ez badaude.
- B motako gida baimena izatea.
- Bere laneko betebeharrak egin ahal izateko desgaitu edo gabetua ez egotea
- Lanbidean aritzeko inhabilitaziotik ez izatea.
- Gutxienez ere, Goi-mailako Ingeniaritza, Teknikoa, edo Graduak titulua izatea, Obra zibileko Gradua (Bideetako ingeniaria, Ingeniaritza zibila), Arkitektura edo Arkitektura Teknikoa, Industrial (Ingeniaritza Industrial, Graduak, Ingeniaritza Teknikoa), Agronomia (Agronomia ingeniaria, Graduak, ITA) edo antzekoak. Edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea., eskaerak aurkezteko epea



C.I.F. B- 31405319

bukatzen den egunean. (Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.)

- Garatu behar duen lanbidearekin zerikusia duena, gutxienez, urte bateko esperientzia izatea.
- AUTOCAD programa menderatzea. Hori egiaztatzeko honako dokumentuen bidez egin beharko da:
  - Gutxienez 60 orduko egindako ikastaroen diplomak.
  - Enpresa ziurtagiria programaren erabilera egiaztatzen duena
  - Ikasketa espedientea non aipatutako formazioa jaso dela egiaztatzen den.
- 

### 3. HAUTAKETA PROZESUAREN EZAUGARRIAK.

**Publizitatea:** deialdiaren oinarriak argitaratuko dira:

-Nafarroako Lansareren bidez

-Mankomunitatearen weborrian: <http://www.mancomunidadvaldizarbe.com/>

-Mankomunitatearen Facebooken: <https://www.facebook.com/MancomunidadValdizarbe/>

**Gardentasuna:** hautaketa prozesua idatziz dokumentatuko da eta argitaratuko da aurrean aipatutako Mankomunitatearen webgunean.

### 4. HAUTAKETA PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKAEREN AURKEZPENA.

4.1. Deialdian parte hartu ahal izateko instantziak Izarbeibarko Mankomunitatearen bulegoan aurkeztu beharko dira, Garesen: Mendigorria errepidea, 4, **2018ko maiatzaren 11ko 14:00ak baino lehen** edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 1 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan agertzen diren bideen bidez.


Instantziarekin batera deialdiaren 2. Oinarrian eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu behar dira:

4.2. Instantzia hauek deialdi honen I. eranskina bezalakoak izan behar dira.

4.3. Merezimenduak eskaerarekin batera aurkeztu behar dira.

4.4. Eskaerak Izarbeibarko Mankomunitate Erregistro Orokorrean ez, beste batean aurkezten direnean, eskatzaileak haren kopia eta sartzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak, zigilua eta erregistroko sarrera-data dituztela, [mancomunidad@mancomunidadvaldizarbe.com](mailto:mancomunidad@mancomunidadvaldizarbe.com) helbide elektronikora igorri beharko ditu, betiere aurkezteko epearen barruan. Nahitaezkoa eta saihestezina izanen da aipatu agiriak posta elektronikoz igortzea, hautapen prozeduraren tramitazioak aurrera egin dezan, baina ez du erabateko baliorik izanen Mankomunitateko Erregistro Orokorrean jatorrizko ereduaren arabera eskabidea aurkezten ez den bitartean.

Igorpen prozedura hori bete ezean izangaia hautapen prozeduratik kanporatua izanen da, baldin eta erregistratutako eskabidea izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren argitalpenaren ondotik iristen bada.



## 5. IZANGAIEN ONARPENA ETA ERREKLAMAZIOAK.

5.1. Eskakerak egiteko epea bukatzen denean, Izarbeibarko Mankomunitateko eta SAV/AIZko Lehendakari Andreak ebazpena luzatuko du onartu eta baztertuen zerrenda onartzeko eta iragarki- taulan eta web-orrian <http://www.mancomunidadvaldizarbe.com> eginen dira publiko.

5.2. Publiko egin ondoren bi laneguneko epea, argitaratzearen biharamunetik hasita egongo da erreklamazioak egin edo instantziako akatsak zuzentzeko.

5.3. Aurreko oinarrian ezarritako epea pasata eta erreklamazioak ebatzita Izarbeibarko Mankomunitateko presidentearen ebazpena egingo da, eta onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak publiko egingo dira web-orrian eta Izarbeibarko mankomunitatearen iragarki taulan.

Baztertutako izangaiak egon ezean, behin betiko zerrenda Mankomunitateko iragarki taulan eta weborrian argitaratuko da zuzenean.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira, noiznahi. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 109.2. artikulua araberaz

## 6. HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA.

### 1. FASEA: LANPOSTUA AURRERA ERAMATEKO GAITASUN-PROBA TEORIKOA: GEHIENEZ 70 PUNTU.


**Proba 2018ko ekainaren 12an, 10:00etan egingo da, Garesko Aloa Poligonoan Mankomunitatearen egoitzan, erabilera anitzeko gelan.** Ariketa honetarako deialdi bakarra eginen da eta hautagaiek NANA, edo baliokidea eraman beharko dute probara. Ezin da kontsultarako material erabili eta boligrafo urdina eta programatu ezin den kalkulagailua eraman beharko dira.

Probaren gehieneko balioa 70 puntu da, eta baztertutakoak geldituko dira gutxienez ere puntuazio horren erdia eskuratzen ez dutenak.

II. eranskinean definitutako eta lanarekin zerikusia duten gaiei buruzko test motako galderak (egia/gezurra) izango dira (gaizki erantzundako galdera bakoitzeko asmatutakoari ematen zaion adina kenduko zaio), baita galdera motzak ere (akatsak edo erantzunik gabe uztea ez dira zigortuko).

Proben sistema gutunazal itxiaren bidez eginen da, pliken bidez, behin proba zuzenduta eginen dira publiko emaitzak eta plikaren zenbakia, eta pliken irekiera eguna eta ordua.

Pliken zabaltze publikoaren ondoren, behin-behineko puntuazio nominatiboak publikatuko dira. Bi eguneko gehieneko epean, hautagaiek probaren berrikustea eskatzen ahalko dute eta



erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte. Epe hau bukatuta, proba teorikoaren puntuazioen behin-betiko zerrenda publikatuko da.

## 2. FASEA: MERITUEN BALORAZIOA: GEHIENEZ 30 PUNTU

Lehenengo fasea (proba teoriko-praktikoa) eta, behar denean euskararen ezagutza proba gainditu dituzten pertsoneri eta, eskaera orriarekin batera onartuak izateko ekarritako dokumentazioaren gainean baloratuko zaizkie bakarrik merituak. Epez kanpoko aurkeztutako merituak ez dira onartuko.

Lehiaketa fasean lortutako puntuak osotara ezin dira izan 30 baino gehiago

### A. Lan esperientzia: gehienez 12 puntu.

Deialdian eskatzen den lan esperientzia baino gehiago izatea baloratuko da.

**Urte bakoitzeko** (beti ere eskatzen den urtea baino gehiago) **4 puntu**, baloratuko den urte kopurua osoa ez balitz, proportzionalki jokatuko da, gehienez ere 3 urte.

Fase honetan, esperientzia egiaztagiriren bidez balioztatuko da: enpresa ziurtagiriak, nominak, eta edo beste dokumenturekin. Beti ere, antzinasuna eta eta lanpostuarekin erlazionatutako Teknikariaren kategoria argi agertu behar dira.

### B. Formazioa. Gehienez 8 puntu.

Lanpostuarekin zerikusia duten formazio jarduerak baloratuko dira, gehienez ere 8 puntu.

- Master, graduondokoa edo unibertsitateko espezializazioa: 5.
- Lanpostua behar den bezala egiteko beharrezkoa den ezagutza lortzeko ikastaroengatik: 60 orduko ikastaro bakoitzeko puntu 1 (hori baino luzera handiagoko ikastaroetan proportzionalki jokatuko da).

Formazio merituak baloratu ahal izateko kontuan hartuko dira tituluaren fotokopia edota ikastaroaren ordu osoak agertuko diren ziurtagiria.

### C. Euskararen ezagutza. Gehienez 10 puntu.

A1 maila: puntu 1


A2 maila: 2 puntu

B1 maila: 6 puntu

B2 maila: 8 puntu

C1 maila: 10 puntu

Euskara maila egiaztatua izan behar da. Horrela ez bada, izangaiak merezimendu gisa baloratu ahal izateko, Euskarabideak egingo duen mailaketa proba gainditu beharko du.



Epaimahaiak merituen balorazioa egin ondoren, izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitaratuko ditu Mankomunitatearen webgunean. Bi eguneko epean, interesdunek ekarri izandako merituen berrikuspina eskatu dezakete eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkezten ahal dituzte behin-behineko puntuazioen aurka. aurka. Epea bukatu ondoren, aipatutako lekuetan argitaratuko dira behin-betiko puntuazioak.

Lehiaketa eta oposizio faseetan lortutako puntuazioak batu ondoren, berdinketarik izanez gero, proba teoriko-praktikoan puntuaziorik onena atera duen izangaiek izanen du lehentasuna.

## 7. HAUTAPEN EPAIMAHAIA.

- *Presidentea*: Sabina García Olmeda Anderea. Izarbeibarko Mankomunitateko eta AIZ S.M. enpresaren Presidentea .  
Ordezkoa: Julio Laita Zabalza Jauna, Izarbeibarko Mankomunitateko presidenteordea..
- *1 Batzordekidea*: Sergio Pérez Suescun Jauna, Bulego tekniko eta Proiektuen arduraduna.  
Ordezkoa: izendatu gabe
- *2 Batzordekidea*: Jorge Núñez Ortiz Jauna, SAV-AIZ S.L enpresaren Ur-arduraduna.  
Ordezkoa: izendatu gabe
- *3 Batzordekidea*: Francisco Fernández Rodríguez, AIZSM enpresaren Ordezkarik Sindikala.  
Ordezkoa: Berak aukeratutako langile bat.
- *Batzordekide-idazkaria*: Jaione Mariezkurrena Anderea, Mankomunitateko idazkaria eta AIZSM enpresaren zuzendaria  
Ordezkoa: izendatu gabe

7.1. Epaimahaia ezingo da osatu edo ezingo du erabakirik hartu kideen gehiengo absoluturik gabe.


Epaimahaia osatu ahal izateko presidentek bertan egon beharko du eta baita idazkariak ere, edo, bere kasuan, haien ordezkoak eta, gutxienez, epaimahikideen erdia.

7.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta Epaimahaiaren Presidenteari hala jakinarazi, baldin Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean abstentziorako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean

7.3. Epaimahaiak gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

7.4. Epaimahaiak aholkulari adituak hartzen ahalko ditu. Aholkulari horiek dagokien espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.



C.I.F. B- 31405319

## 8. KONTRATAZIO ZERRENDEN KUDEAKETA.

8.1. Arga-Valdizarbe /Arga Izarbeibarko Zerbitzuak S.L. enpresaren Administrazio Kontseilua onartua ondoren egongo da indarrean onartuen zerrenda eta beste deialdia egiten den arte.

8.2. Behin-behineko kontrataziorako izangaien zerrenda kudeatzeko arauak.

- Izangaien kontratazioa, oro har, zerbitzuaren beharren arabera banakako deiak egin ondotik egingen da.

Izangaiak aise atzeman ahal izateko, kontakturako telefono batzuk, posta elektronikoen helbidea edo fax-a eman beharko dituzte, eguneraturik izan beharko dituzte,

Izangaiei zerrenda bakoitzean dagoen lehentasun ordenaren arabera dei egingen zaie.

Kontratua telefonoz eskaintzen zaion izangaiari bi dei, bederen, egingen zaizkio emandako zenbakietan eta helbideetan, eta bi egunean.

Dei bakoitzaren idatzizko oharra egingen da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte.

Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.


Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendaren bukaerara pasako da, ondoko egoera batean dagoela frogatu ezean:

1. Aldi baterako ezintasun egoeran badago edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia badu.
- 2.-Kargu publiko edo o funtzio sindikaletarako hautetsia izatea.
3. Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena.
4. Izangaia ezkondu berria bada edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, balio bereko egoeran sartu berria, hori gertatu ondoko edo gertatu aurreko hamabost egun naturaletan uko egingez gero lanpostuari.

Aitzineko atalean adierazitako egoeretako batean edo kontratazio arloak eskumena duen organoak baloratuko dituen gisako egoeretan dauden izangaiek hilabete bateko epea izanen dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, hori agiriekin eta modu frogagarrian egiaztatzeko. Hala bada, zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

Uko egiteko moduko arrazoiak dauden kasu guztietan izangaiek jakinaraziko dute noiz dauden berriz zerbitzurako prest. Horretarako, uko egitea ekarri zuen egoera noiz bukatu den adierazten duten agiriak aurkeztuko dituzte. Jakinarazpen hori egin arte, ez zaie lanposturik eskainiko.

- Izangaiak honako kasu hauetan geratuko dira deia ekarri duen zerrendatik kanpo:
  - a) a). Eskaintako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
  - b) b). Sinatutako kontratuari uko egiten badiote.



**SERVICIOS ARGA VALDIZARBE -  
ARGA IZARBEIBARKO ZERBITZUAK S.L.**

**C.I.F. B- 31405319**

Ctra. Mendigorria nº4, bajo  
31100 Puente la Reina/Gares  
(Navarra/Nafarroa)  
Tfno: 948 34-10-76

c). Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua sinatzen ez badute.



## I. ERANSKINA: ESKABIDEA.

SERVICIOS ARGA VALDIZARBE/ARGA IZARBEIBARKO ZERBITZUAK S.L. ENPRESARI

**GAIA:** SERVICIOS ARGA-VALDIZARBE / ARGA IZARBE ZERBITZUAK S.L. ENPRESARENTZAT BULEGO TEKNIKORAKO ETA PROIEKTUETARAKO TEKNIKARIEN ZERRENDA ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK EGITEKO DEIALDIA

IZENA: NAN:  
ABIZENAK:  
HELBIDEA:  
HERRIA: P.K:  
KONTAKTURAKO TELEFONOA:  
HELBIDE ELEKTRONIKOA:

### AZALTZEN DU:

1. Idazki honen bidez formalki eta zehazki adierazi nahi duela kontrataziorako deialdian parte hartu nahi duela.
2. Eskatzaileak publikatu den deialdiko baldintzak betetzen dituela.
3. Lanpostuak berez dituen eginbeharrak egin ahal izateko ez duela ezgaitasun fisiko edo psikikorik.
4. Lanpostuarekin zerikusia duten arlo teknikoetan, gutxienez, urte bateko lan esperientzia baduela.
5. Selektzio-prozesutik eratorritako komunikazioak bidaltzeko kontuan har dadila aurrez jarritako helbide elektronikoa.

### ATXIKITZEN DU:

- NANaren fotokopia edo dokumentu baliokidea.
- Gidatzeko B mailako karneta
- Eskatutako unibertsitateko tituluen fotokopia.
- Lan-esperientzia ziurtatzen duen dokumentazioa.
- AUTOCAD programa menperatzen duela ziurtatzeko dokumentazioa.

### Merituen baloraziorako:

- Meritu gisa baloratu daitezkeen tituluen fotokopiak.
- Eskatzen den esperientzia baino altuagoa egiaztatzeko dokumentuak
  
- Euskara mailaren ziurtagiria
- Euskara maila egiaztatzeko Euskarabideak egingo duen probaren eskaera.

### HAUTAKETA-EPAIMAHAIARI HONAKOA ESKATZEN DIO:

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera onar dezan.  
Merezimenduen fasean baloratzeko aurkeztzen den dokumentazioa onar dezan.

.....n, 2018ko .....ren .....(e)an

SINADURA

## II. ERANSKINA:

### ARIKETA TEORIKO-PRAKTIKOAREN GAIAK

1. IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA ETA BERE EREMU GEOGRAFIKOAREN EZAGUTZA.
  - Izarbeibarko Mankomunitateari buruzko informazio orokorra (*Mankomunitatearen weborrian eskuragarri*).
  - Organigrama.
2. PROIEKTUAK:
  - Proiektuaosatzen duten agiriak.
  - Proiektu baten kontratuari dagozkion aldeak.
  - Lanen lizitazioa, esleipena eta betetzea: klausula administratiboen baldintzak, aurreikusi gabeko unitateak, prezio kontrajarriak, egiaztapenak eta likidazioak.
3. HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDURAKO SAREAK:
  - Hornikuntza sareetan ohikoenak diren hodiak: materialak, tinbraketak, diametro izendatua.
  - Hornikuntza sareen osagaiak: harguneak, balbulak, bentosak, hustubideak, ur-harguneak, ureztatze-ahoak.
  - Saneamendu sareen osagaiak: harguneak, kontrol-putzua.
4. LEGEAK:
  - Uraren Ziklo Integrala arautzeko Izarbeibarko Mankomunitatearen erregelamendua (*Mankomunitatearen webgunean eskuragarri*).
  - Ur-Hornikuntzako Sareen Izarbeibarko Mankomunitatearen Araudi Teknikoa (*Mankomunitatearen webgunean eskuragarri*).
  - Ur-Saneamendurako Sareen Izarbeibarko Mankomunitatearen Araudi Teknikoa (*Mankomunitatearen webgunean eskuragarri*).
  - 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen honako artikulua: 20.enetik 26.enera (biak barne) eta IV. Eranskina (4. eta 5. atalean). (2016ko/12/19 NAO)
  - Eraikuntzaren kode teknikoak. Oinarrizko dokumentuak DB-HS 4 (Uraren hornikuntza) eta DB-HS 5 (Uraren hustuketa).
  - 140/2003 Errege Dekretua, otsailaren 7koa, Giza kontsumorako urari buruzko osasun irizpideak ezartzen dituena. (2003/02/21 45. NAO).
  - 12/2006 FORU DEKRETUA, otsailaren 20koa, saneamendu kolektore publikoetara ur isurketak egin ditzaketen jardueren ezarpenerako eta funtzionamendurako baldintza teknikoak jartzen dituena. (2006/03/13 NAO).
  - **11/1996** foru agindua, otsailaren 19koa, toki administrazioko kontseilariak emana, toki entitateek Nafarroako zergetan parte hartzeko fondoan, kapital transferentzien zatian, asignaturik dauden partiden bizkar egin beharreko obra proiektuak aurkezteko arauak onesten dituena. (1996/03/27 NAO).
  - 105/1999 FORU DEKRETUA, apirilaren 12koa, hondakin urak isurtzeagatik sor daitezkeen kalteak saihesteko, igerilekuek eta ura edangarri bihurtzeko tratamendurako instalazioek bete behar dituzten kondizio teknikoak ezartzen dituena. (1999/04/23 50. NAO).
  - 148/2003 FORU DEKRETUA, ekainaren 23koa, abeltzaintzako instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean ingurumenaren aldetik bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituena. (2003/07/30 NAO).
  - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.